

**BARNEZABAL  
EKINTZAK  
2020-2021erako**



BARNEZABAL

**Mercedarias  
Misioneras de Berriz**

Sallobente, 20  
48249 Berriz - Bizkaia  
Tel./Fax 946 827 255  
681 215 481  
info@barnezabal.org  
www.barnezabal.org



**MISIOA GAUR EGUN**

***Covid-19aren osteko fede begirada inguruari***

Pandemia honek aldatu egin gaitu. Eraberritzeko aukera ematen digu, sosrtzen ari diren galderei erantzuteko gauza bagara. Egun bateko ekitaldi honetan, pertsona, elkarte, gizarte eta Eliza lez hartu beharreko norabidea aztertu eta landu nahi da, bidea luzea izango dela jakinik.

*Laguntzaileak: Patxi Álvarez de los Mozos sj (Alboan), Alicia Suso (Bizkaiko Caritas) eta Ana Berrizbeitia (Elizbarrutiko Teologia eta Pastoralta Institutua).*

**2021.eko urtarrilaren 30ean (larunbata)**

---

**TAILERRA: Erromatarrei egindako Karta.  
*Sinesmena sendotzeko ibilbidea***

Paulo apostoluak, Erromako elkarteari zuzendutako idaztian, bere lehen ardura adierazten du: nola jarri konfiantza osoa kontrolatu ezineko Jainko batengan. Horixe da, hain zuzen, erronka nagusia Jesusengan sinesten duenarentzat. Idazia irakurri ahala, Jainkoaren irudia aztertu eta Jesusek duen konfiantza gureganatu dezakegu.

*Carlos Gil Albiol, OFM kaputxinoa*

**2021.eko otsailaren 27an (larunbata)**

---

**PAZKOA: *Guztion Etxea zaintzeko deia***

Pazko Hirurrena isiltasun eta otoitz giroan bizi eta ospatzeko aukera, natura ikusgarritz inguraturik, Jesusen Heriotza eta Piztueraren misterioa gertatzen ari den munduari begira.

*Elizkizunak Berrizeko moja elkartearekin batera ospatuko dira. Gurasoak eta umeak parte hartu ahal izateko aukera aproposa.*

**2021.eko apirilaren 1etik 4ra**

---

**OTOITZALDIA**

***Yada taldea: esperientziaren bidez lortutako ezagutza***

S. Inazioaren estiloan, emakumeen ikuspuntutik.

*Laguntzailea: Miriam sarea. Pepa Torres, Pilar Aisa, Marisa Pereiro.*

**2021.eko abuztuaren 1etik 6ra**

---